Lurrikara izan zen ostegunean Nafarroan

IRUÑEA

Lurrikara izan zen herenegun gauean Tafalla eta Irunberri artean. SOS Nafarroak plazaratutako datuen arabera lurrikara maiatzaren 27an gertatu zen 22.14etan, eta Geografi Institutuak dioenez, 3,2 graduko intentsitatea izan zuen Richter eskalan. Epizentroa Aragoiko Huesca probintziaren iparraldean kokatu du institutuak, 42º 50' ipar eta 0º 7' mendebalde koordenadetan, eta goizeko zortziak eta laurdenetan Pirinioetan gertatutako beste baten 'oihartzuna' izan zen. Lurrikara horrek 3,8 graduko intentsitatea izan zuen Richter eskalan eta 42º 50' ipar 0º 3' mendebalde koordenadetan izan zuen epizentroa.

Bizkaian etzi sinatuko dute ostalaritzako hitzarmena

DONOSTIA

Datorren astelehenean sinatuko dute hitzarmena Bizkaiko ostalaritza sektoreko patronalak eta langileen ordezkariek. Izan ere, iragan astean iritsi zuten adostasuna, langileen % 81en ordezkaritza osatzen duten ELA eta UGT sindikatuek eta sektoreko enpresariek.


Bi urteko iraupena izango du sinatu beharreko hitzarmenak eta besteak beste, 1993an soldaten igoera % 6,4ekoa izango dela zehazten du. Horrezaz gain, 1994erako sektoreko langile guztien soldaten igoera, taula bakarraren araberakoa izango da, orain arte zeuden bereizketak ezabatuz.

El Salvadorreko gerran jazotakoaz liburua aurkeztu da Euskal Herrian

Gatazka ezagutu zuen Begoña Sopelana durangarraren eskutik

El Salvadorreko gerrari buruz Nazio Batuetako 'Egiaren Batzordeak' jorratutako txostena jaso duen liburua Euskal Herrian aurkeztu zuten atzo. 'De la locura a la esperanza' ('Hondamenetik esperantzara') liburua gerra hurbiletik bizi zuen Begoña Sopelana euskaldunaren eskutik etorri da.

LUIS KARLOS GARCIA / **GASTEIZ**



Begoña Sopelana, Gakoa argitaletxekoarekin aurkezpenean. OLALDE

Begoña Sopelana, Hirugarren Mundua eta Bakea elkarteko durangarra, hangoen doinuan mintzatu zen atzo Gasteizko Udalean emandako prentsaurrekoan, 12 urte eman zituen El Salvadorreko gerraren inguruan nazioarteko hiru adituk egin zuten txostenaz eta bestez.

Adituok 22.000 salaketa jaso zituzten 6 hilabetetan eta gehienak (% 85) talde paramilitarrek eta Armadak egindako giza eskubideen bortxaketak ziren.

Sopelanaren ustez, guzti honetaz liburuak dioena El Salvadorrekoentzat batere berria ez da.

«Baina informazioa edukita», adierazi zuen kooperante euskaldunak, «hurrengo helburua genuke nazioarteak El Salvadorreko Gobernuan, Armadan eta Gorte Gorenean presio egitea gerraren osteko bake akordioak bete daitezen, datorren urteko hauteskundeak garbiak izateko eta militarren aldeko amnistia-legearen kontra jotzeko, elkartasunean eta kooperazioan laguntzeaz gainera».

Gakoa argitaletxeak kaleratutako liburua lehen aldiz aurkeztu zuten atzo Euskal Herrian. Datorren astean Madrilen egingo dute, «hirugarren munduko herrienganako elkartasun efektiboa ezezik, gertatutakoaren inguruko kritika ere zabaldu nahirik», deklaratu zuen Antonio Dupla Gakoa-koak.

Donostiako Entzutegiak eragozpen legeari jarritako autoak epaiketak atzera litzake

DONOSTIA

Donostiako Entzutegiak Auzitegi Konstituzionalari bidali dio Kontzientzi Eragozpenaren Legea «sexu diskriminazioa» sor dezakeela argudiatuz. Erabaki hau Iñaki Camacho gazte intsumiso gipuzkoarraren epaiari aurkeztutako errekurtsoa aztertzean hartu dute epaile donostiarrek eta herrialde honetan bertan egiteko diren epaiketak atzera litzake erabakiak.

Erabakia Fiskaltzaren eta defentsaren argudioak entzunik hartu du Entzutegiak eta jurisprudentzia izan lezake. Luis Blanquez Perez, Antonio Gimenez Pericas eta Jose Maria Fragoso Bravo epaileek osatutako tribunalaren autoak Kontzientzi Eragozpenaren Legearen konstitucionaltasuna jarri du zalantzan. Haien ustez, lege honek diskriminazioa eragin dezake sexuaren arloan Lege Organikoaren 11.2 artikuluak soldadutza egitetik libre uzten baititu emakumezkoak Konstituzioaren 14. artikuluaren edukia hautsiz.

«UNIBERTSITALITATE SISTEMA APURTURIK»

Epaileen testuak esaten duenez, erabaki honek ez ditu emakumezkoak derrigorrezko soldadutza egitera bidali nahi, ezta gizonezkoak ere, hori legegilearen konpetentzia baita. Autoak zalantza bat aireratu besterik ez du egin, alegia, dudatan jarri ditu arau hauek berauek unibertsitalitate sistema apur dezaketelako.

Emakumezkoek soldadutza egiteko eskubiderik ez izanik gizonezkoak baino ez daude beharturik soldadutza edo Ordezko Zerbitzu Sozialaren artean aukeratzera, eta beraz honi uko egitearen ondorioz etor litezkeen zigorrak beraientzat izango lirateke soilik.

Droga sarea desegin du Ertzaintzak

BILBO

Ertzaintzak beste hiru lagun atxilotu ditu Getxo eta Bilbo aldeko droga sareen kontra egindako operazioen barnean. Azken atxiloketa hauekin 16 dira jadanik jarduera hauen ondorioz detenitutako pertsonak.

Barne Sailaren arabera, gaizkile talde hau Bizkaiko hiriburuan eta Ibar Eskuineko herri horretan azken hilabeteotan atzemandako heroina banaketa areagotzearen arduraduna izango litzateke. Ertzaintzak ohar batean jakinarazi duenez, banda «kasik deseginik» dago.

Joan den asteartean Ertzaintzak Mario Joao C.D. 34 urteko angolarra atxilotu zuen Bilbon, Madriletik heldu berria zenean. Polizien ustetan, pertsona hau taldeko 'mezularia' zen.

Hasiera batean egindako araketan aldean drogarik ez zeramala ohartu ziren ertzainak. Hala ere, eritetxe batera eraman zuten eta bertan egindako azterketaren ondoan hesteetan 300 dosi heroina barruan zituela jabetu ziren. Ondorioz beste bi lagun detenitu zituen Ertzaintzak: Quintino A.C. 25 urteko gineara, eta Carlos I.C. 24 urteko portugaldarra. Ikerketen arabera, bi pertsona hauek sarri joaten ziren Madrila droga erostera.

Talde honi buruzko ikerketak hasi zituenetik hiru etxebizitzaz osatutako azpiegitura bertan behera utzi du Ertzaintzak: bat Algortan eta bi Bilbon.

Atxilotutakoen artean zenbait afrikar daude, Bilbora droga eramaten zutenak, baita euskal herritarrak ere, geroago heroina banatzen zutęn gazteak, hain zuzen ere.

HILDAKOAK

ARABA

■ GASTEIZ **Jesus Rojo Sagredo,** 70 urte. **Sabino Lopez de Okariz Lopez de Okariz,** 71 urte.
■ LAUDIO **Juan Goitia Lekanda,** 91 urte.

BIZKAIA

■ BILBO **Josefa Palomero Saiz. Maria Rosa Lasa Romeo. Teresa Bricio de la Helguera,** 97 urte. **Tomas Villasol Coca,** 58 urte. **Maria Carlos Alonso,** 81 urte.
■ ALGORTA **Jose Luis Merino Sanchez,** 79 urte.
■ AREETA **Francisca Diaz Velasco,** 93 urte.
■ BEDIA **Trinidad Zabala Bilbao,** 87 urte.
■ ETXEBARRI **Nieves Garcia LLanos,** 70 urte.
■ FRUIZ **Gregorio Duo Bilbao,** 65 urte.
■ LOIU **Braulio Gaztañaga Mauraza,** 73 urte.
■ SODUPE **Jose Fika Unzaga,** 92 urte.
■ ZAMUDIO **Agustin Landeta Landeta,** 74 urte.
■ ZEBERIO **Jose Abrisketa Etxebarri,** 80 urte.

GIPUZKOA

■ DONOSTIA **Juan Bersue Zumeta,** 78 urte.
■ ANTZUOLA **Rosa Mari Garin Balzategi,** 49 urte.
■ ARRASATE **Ignacio Beitia Aiastui,** 59 urte.
■ ASTIGARRAGA **Desiderio Redondo Alonso,** 76 urte.
■ ESKORIATZA **Eulalia Iñurrategi Garro,** 93 urte.
■ HERNANI **Modesto Navas Molero,** 77 urte.
■ LASARTE **Argimiro Rey Castromil,** 62 urte. **David Moreno Encinas.**
■ TOLOSA **Aitor Iturbe Aierbe,** 23 urte.
■ ZARAUTZ **Daniel Aizpurua Aristi,** 83 urte.

LAPURDI

■ BAIONA **Michelle Kazaux,** 75 urte. **Jacques Castets,** 62 urte. **Jean Barace.**
■ ANGELU **Jean Auvinet,** 73 urte.
■ ARBONA **Patrice Clement.**
■ HAZPARNE **Joseph Zubialde,** 75 urte.
■ MIARRITZE **Claude Pelletier,** 53 urte. **Arnaud Touzaa,** 34 urte. **Jean-Marc Aurange.**
■ ZIBURU **Marianne Otxoteko Cerciat,** 94 urte.

NAFARROA

■ IRUÑEA **Fermin Azkona Mujika,** 31 urte. **Felisa Bidaurre Etxaleku,** 78 urte. **Maria Gloria Royo Lorenzo,** 54 urte. **Manuela de las Heras de Castro,** 82 urte. **Juan Maria Erro Arregi,** 59 urte. **Fermin Azkona Mujika,** 31 urte.
■ ATARRABIA **Lucas Ibañez Goñi,** 94 urte.
★ AZKONA **Carmen Pagola Etxauri,** 86 urte.
■ LERIN **Jovita Moreno Alonso,** 87 urte.
■ LEZAUN **Luis Barrenetxea Anzin,** 69 urte.
■ LIZARRA **Antonia Iriberri Azkona,** 78 urte.
■ MAÑERU **Maria Ibañez Romero,** 65 urte.
■ MIRANDA-ARGA **Jesus Lopez Ibañez,** 84 urte.

NAFARROA BEHEREA

■ AIHERRA **Elisabeth Bakardatz Barbier,** 94 urte.
■ HELETA **Michel Etxebehere,** 88 urte.
■ MITHIRIÑA **Jeanne Etxart Etxeberri,** 86 urte.

ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:
ARRATSALDEKO
4ak ARTE: (943) 46 90 22
4etatik 7etara: (943) 37 15 45